

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Oñila'ren 22'an.

Euskaltzaindia batzaraldian bildu zan, ta ageitu ziran euskaltzañak, abetxek dira: Azkue, maipuru, Eleizalde, Kanpion, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Eguskitza, Olabide, Altube, Intzagarai, urgazlerik batez.

1. Uriolabeitia'tar Amantzi jaunak agertzen duen gai bati erantzuteko, Euskaltzaindi'ak Eleizalde jaunaren txosten bat nai luke.

2. Euskal-laterazko izkinde edo *gramatika* idaztea Aita Ormaetxea urgazle jaunari Euskaltzaindia'k egotzi zion. Urgazle jaun onek Euskaltzaindia'ren asmoa aurera eraman nai luke, bañan aurten astirik ez dauka. Urango urterako agintzen diyo. Poz-pozik entzun da auxe.

3. Eusko-Ikaskuntza'ren Euskaleñi'ko mapa Montaner jaunak Euskaltzaindia'ri bidali zion, eñi, mendi, ibai, eñeken izen-zerenda ondo-idatzia ote zegon jakin nairik, eta Euskaltzaindia'k azteñtu ta berizteko esku-bidez. Euskaltzañak deritzate, lan au luzarokoa dala; bañan Geñnika'n mapa ori aurkestu nai dalako, Euskaltzaindia'k Montaner jaunari oraingoz emango dizkiyo eñi-mendi ta ibai nagusiyen izenak, ta guziko lana, beta geyago arñtu-ta, geroago bidaliko diyo.

4. Geñnika'ko Euskal - Batzarëan, Euskaltzaindia'ren arabera egin beañ diran mutiñ ta nexka koxkoren azteñketan, iru maña izango dira:

1.^a Maña: Irakuñtza ta idazkuntza, ta mail ontako

sariyak abetxek: 1.º 25 peseta, 2.º 15 peseta, 3.º 10 peseta.

2.^a Maġa: Lutelestiya ta Kristau-Ikasbidea; sariak: 1.º 40 peseta, 2.º 25, 3.º 15.

3.^a Maġa: Zenbakiztiya; sariyak: 1.º 50 peseta, 2.º 35, 3.º 25.

5. Aita Intzak dasa, Iruña'ko apaiz - ikastetxeko buruak euskerazko ikastola jaři nai duela, Gotzai jaunak ofetarako aukeratu duen-apaiz-irakasle baten ardurapean ipiñirik. Euskaltzaindia'ri galdetzen diyo: zorozpiderik ikastola oni eman lezayoken Euskaltzaindi berak. Onek erantzun diyo, gutxinaz 500 peseta zorozpidetzat emango duela.

6. Azkue Euskaltzainburu jaunak *euskal-atzizki*-en irakuřtza jařaitu du.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi - ta, araudi-otoitzez amai eman zayo batzařaldi oni.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Ořiġa'ren 23'an.

Batzařaldi ontan bildu diran euskaltzaiņak abek dira: Azkue, maipuru, Eleizalde, Kanpion, Lakonbe, Landeřetxe, Intza, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, ta urgazletatik Belaustegigoitia Peřderika jauna.

1. Gondra Sendalari jaunaren txosten bat irakuři da. Euskera - batasuna gai dakař. Euskaltzaindia'k onetazko txostenak bildu-ta dauzka, ta liburutxo batean argitaratuak. Ořetxegatik, ezin ezer esan ta erabaki dezake, gai onetxen bideak amaitu diralako.